

# BIZITZARI AURRE EGIN, ELKARTASUNA EHUNDU

LOIOLAETXEA

10 URTE BARNERATZE ESPERIENTZIAK JORRATZEN



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**

Giza Eskubideetarako, Enplegarako eta Gizarteratzeko Departamentua  
Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social



# AURKIBIDEA

ESKERRAK.....	3
AURKEZPENA.....	5
HITZAURREA.....	7
I. SUSTRAIDUN DEIALDI EMANKORRA.	
LOIOLAETXEAKO ESPERIENIZIA: HASIERA ETA BILAKAERA.....	12
Inspirazioa.....	12
Aurrekariak. Amarenako esperientzia.....	12
Loiolaetxea. Bizitzaren esperientzia bizitzatik.....	20
Esperientzia kopuruetan adierazita.....	26
II. GURE ETXERA DATORRENA, BERE ETXEAN DAGO.	
BLOKEA. BIZI-IBILBIDEAK LOIOLAETXEAN.....	37
Ametsa zein zen.....	37
Nolako bizitzarekin joan garen.....	39
Bidean lagun izan ditugun eskuak.....	44
Etxean.....	47
Loiolaetxearentzat etorkizun batekin ametsetan.....	53
III. LOIOLAETXEA, ADIBIDE BERDINGABEA EDO AUKERA IRADOKITZAILEA	
GURE KOMUNITATEA GIZARTEAN BISTARATZEA.....	58
Sarrera.....	58
Esperientziak Gizarte-sarearekin eta Saretik.....	58
IV. HAMAR URTE BERANDUAGO. ETORKIZUNARI BEGIRA.....	63
Sarrera.....	63
Zertara gaude deituta hamar urteren ostean?.....	63
DOKUMENTUAN ERABILITAKO TERMINOEN GLOSARIOA.....	68

# ESKERRAK

*Txaburi, Txemari, Yoliri, Migueli, Karmeleri, Diegori eta Juliri, esperientzia honi gogo eta poz handiarekin eman zenietelako hasiera. Izan ere, zuen karismarekin erakutsi diguzue “ezer ez dela ezinezkoa”.*

*Loiolaetxea baino lehen hausnarketa guneetan egon ziren guztiei, zuei esker posible izan delako esperientzia hau jaiotzea, honako hauetan parte hartu duzuelako: espexteetako pastoralen lan-eremuetan, Amarena proiektuaren talde eragilean, Martuteneko espexteko patioetan hainbat egunetan, xedea zein zen oso ondo jakin gabe ...*

*Jesusen Lagundiari, beldurrak, zalantzak zein itzalak albo batera nola utzi jakiteagatik eta etxe honetako Misioan baldintzarik gabe aritzeagatik.*

*Iñakiri, Alexi, Xabiri, Nourdime Carlosi, Manuri, Rousmeri-ri, Valery-ri, Jose Carlosi, Iñakiri, Faisail-i, Abdelkhadek-i, Jabierri, Constantinari, Migueil, Alí-ri, Belki-is, Armandori, Yolandari, Rachid-i, Khalaf-i, Juliori, Pedroi, Mohamed-i, Fernandori, Alexanderrri, Mohamedi, Luciori, Adelari, Steebe-ri, Antoniori, Patxiri, Isabeli, Xabierri, Jamil-i, Nemesiori, Antoniori, Jesús-i, Estebani, Jose M<sup>a</sup>-ri, Robertori, Nikolási, Fernandori, Mohamedi, Manueli, Medhi-ri, Oscarrri, Nereari, Jabierri, Alex, M<sup>a</sup> Luisari, Plácido-ri, Anthony-ri, Miloudi-ri, Micheli, Patxiri, Juan, Lorenzori, Iñigori, Xabiri, Said-i, Marisoli, Celsori, Carminari, Said-i, Rolandori, Imanoli, Ricardori, Yassin-i, Fernandori, Gloriori, Juan Antoniori, Paulori, Ichou-ri, Alejori, Rosivan-i, Gabor-i, Isaciari, Luis Ángeli, Aitorri, Manueli, Jabierri, Rafari, Mourad-i, Pacori, Samir-i, Alexi, Jose Joaquíni, Aukse-ri eta Virginiari, Ismaeli eta Juanicori, Antoniori, Antoniori, Elvirari eta Anouar-i, Carmeni eta Noemíri, Ama-i, Victorri, Vevari eta Iñakiri eta Maiteri, Aitziberri, Carlari eta Isaac-i, Iñakiri, Ahmed-i, Mohamedi, Medhi-ri, Mohamedi, Taoufik-i, Mohamedi, Abdelkhadek-i, Said-i, Erick-i, Hamid-i, Jaouad-i, Hafid-i, Ibrahima-ri, Ayoub-i, Buscota-ri, Rahal-i, Manssur-i, Mamadour-i, Toñiri, Bikandiri, Abdelhamid-i, Binta-ri, Raúli, Olivari... Eta esan gabe utzi ditugun beste hainbat pertsonari, zuek ere zeuen ukitua eman baitiozue esperientziari, etxeari.*

*Adelaidari, Josebari, Jabierrri, Martíni, Carlosi, Joxini, Luchori, Iosuneri, Bittorri, Martari, Oierri, Aimarri, Jamil-i, Itziarri, Pedrori, Ku-ri, Itziarri, Manuri, Anari, Edurneri, Bakartxori, Ramóni, Juantxori, Joseberri, Joseri, Manolori, Eduardori eta Ángeli, oraindik ere Loiolaetxean grina mantentzen duzuelako eta gogoz aritzen zaretelako indar guztiekin sinesten duzuen esperientzia honetan.*

*Boluntarioei, laguntzaileei eta elizara joaten zareten guztiei: Normari, Milari, Migueli, Begoñari, Asuni, Arantzari, Obduliari, Xabierrri, Félix Luisi, Elenari, Juana Mariri, Guadari, Migueli, Iratiri, Pablori, Itziarri, Lucíari, Robertori, Deustuko Unibertsitateari, EHUri... Egoteko "gune" asko bete dituzuelako eta betetzen dituzuelako etxean, trukean sekula ezer lortu gabe.*

*Mertxeri, Josemiri, Joni, Jose Mariri, Anari, Joseri, Ioni, Iñakiri, Diegori, Eusebiri, Luciliori, Chércoles-i, Paquet-i... aldizkako egonaldi laburren bidez, bizitasuna eman diozuelako eta oraindik ematen diozuelako leku honi, etxe honi, zuen ekarpenekin, egonaldi laburrekin, konpromisoekin eta laguntza puntualekin.*

*Gizarte-sarean zaudeten guztioi, zuekin lan egiteko aukera paregabea daukagulako. Horrela lortuko dugu gero eta jende gutxiago baztertzea eta gero eta gehiago gizarteratzea.*

## AURKEZPENA

Zenbaitetan bizitzan, guk uste baino sarriago ziur asko, baina ez hainbestetan ere! elkartasuna erakusteko aukera izaten dugu eta hori eskatzen zaigu. Bai, horrelaxe, bizi-bizi, inolako anestesiarik eta ordezkorik gabe. Horrelakoak gertatzen direnean, fededun eta sinestunok, dena delakoa izanda ere bakoitzaren sinesmena, beldur eta eskuzabaltasunez jokatu ohi dugu. Mugak aurrean ditugula, baina era berean, dei horrek berak sortutako esker on sentimendu uholdeak eraginda.

Elkartasunerako dei hori beti gertatzen da horrela eta azken hamar urteotako hila-bete bakoitzeko egun bakoitzean sentitu izan duzue Loiolaetxea aurrera daramazuenok, protagonista anitz dituen ekintza bidezko baten gidari zaretenok sentitu izan duzue. Loiolaetxean bidezko ekintza hori inklusioaren alde, gizartean barneratze-prozesuaren aldeko borrokan aritzea da, norbere pertzepzioetik haratago ikustearen aldeko borroka, berriz jaio edo sortu eta gaizki egindakoak konpondu, barkatu eta barkamena eskatu, sendatu eta besteak sendatzeko gai izan... horren guztiaren aldeko lana da. Hori guztia non eta kartzela-esperientziak izan dituztenen artean edota gizartean dauden bestelako "desderdinen" taldeetan lanean arituta (gure gizarte honetan gu eta haiek bereiztea posible balitz legez, batzuk berdinak eta gainontzekoak desberdinak bagina legez).

Horrelakoetan bidezko arrazoi edo zio horiek eta haien protagonistek komunitatea osatzera bultzatzen gaituzte, hala eskatzen digute eta erdigunea ere eurak markatzen dute. Hurbiltasuna lantzeko gonbitea luzatzen digute. Bidezko ekintzek hurbiltasuna behar-beharrezkoa dute, eta hurbiltasun horrek berak eskatzen digu gozotasunez hitz egitea; hala ere, paradoxikoa dirudien arren, hurbiltasun horrek, komunitatea osatzera bultzatu gaituen indar horrek berak apurka-apurka baina atsedenik gabe arreta galtzera eta desbideratzera bultzatzen gaitu. Elkartasuna beti da arreta galtzera garamatzen bidea, eta era berean, arretarik gabea. Desberdinen komunitateak biltzen ditu elkartasunak, gizarteari zerbait garrantzitsua eta egiazkoa aldarrikatzeko premia dutenak. Dagokigun

kasu honetan, zeinetan gizatiarragoa den adiskidetutako gizarte bat eta biktima eta bo-rreroen artean konponketa beharrezkoa den gizarte batean, gizarte osasuntsuak emateko prest daudenak dira, salgai-hondarrak banatzen ibili beharrean gizarteratzeko benetako aukerak eskaintzen dituztenak. Gainera, argi izan behar dugu, horrelako aukerak denok behar ditugula, ez soilik mugatuta eta markatuta dauden pertsonak.

Bidezko arrazoen eta protagonisten deialdi horiei, hurbiltasunera eta komunitate bizitzara bultzatzen gaituzten horiei, arreta irabaztera eta galtzera garamatzaten horiei, gizartearen egia aldarrikatzera bideratzen gaituzten arrazoi horiei guztiei jesuitok azken urteotan “Elkartasun Komunitateak” deitzen diegu. Hamar urte igaro ostean uste dugu, edo horretarako bidean doala sinetsita gaude, Loiolaetxea Elkartasun Komunitate izateko jaioa dela.

Loiolaetxera, gainontzeko beste hainbat elkartasun komunitatera bezalaxe, komunitate identitatea sendotu nahian iristen da norbanakoa, eta azkenean norbanakoa bera da indartuta eta birsortuta ateratzen dena. Bilaketa horretan jabetzen da bat barneraketa bidez baino ezin dela benetako komunitatea eraiki. Sarritan, inklusio edo barneratzearen aldeko adiskideen bila ere hurbildu izan zarete, bid ehorri jada bihotzean iltzatuta duzuen arren. Horrelakoetan, aurkikuntza osagarria izan ohi da, bidezko zioak edo arrazoiak bidezkoagoak baitira pribatizazio eta manipulazio nahietatik askatuko dituen ikuspegi komunitarioa gailentzen bada. Zuei guztioi, mila esker bihotz-bihotzez deialdiari erantzun izanagatik! Esker mila konpromisoaren bidean urratsak ematen jarraitzen duzuelako, solidartatearen indarrean sinesteagatik! Eta hain maite dugun Loiolako Jesuiten Probintziari ere eskerrik asko, deialdi honetan partaide izateko adorea eta kemena erakusteagatik.

**Juan José Etxeberria Sagastume**  
Loiolako Probintziala

**Martín Iriberry Villabona**  
Gizarte Arloko Delegatua

## HITZAURREA

Agiri hau aurtan burututako lana islatzeko asmoz egin da. Izan ere, hamar urteko ibilbideak Loiolaetxeko esperientzian duen garrantzia berriro irakurtzeko premia zegoen. Urte hasieran ikusi genuen *Loiolaetxea proiektuak* ibilbide luzea zeukala laguntzari, ekintzari eta hezkuntza arloko esku-hartzeari dagokionez, eta horrek hausnartzera eraman gintuen, beharrezkoa zen. Hausnarketa hori bereizkuntza *otoizgilearen* egituraren kokatu ahalko litzateke, baita biltzeko eta bizitzeko jarduera horren jatorrian ere.

Aurki 10 urte beteko ditugu eta pentsatu dugu une egokia dela askotariko esperientzia honen *errealitateari begirada bat luzatzeko* eta iraganari, orainari eta etorkizunari buruzko barne-hausnarketa egiteko. Horren guztiaren xedea da protagonista harremanen historiari argitasuna ematea, Loiolaetxeako misioa freskatzea eta fedearen, justiziaren eta adiskidetzaren aldeko apustua egiteko bidea marrazten jarraitzea, epe ertain zein luzean jarraitu beharreko pausoak proposatuko dituzten elementuak (argiak eta itzalak) jasotzeari begira.

Horretarako, azterketa bat proposatu genuen. Bertan, proiektuaren oinarri diren bi elementu jaso dira:

- Gizarteratze- eta baztertze-espiritualitatea: etxean bizi direnek bizitzeko moduetan, *bizitzaren aldeko borrokan*, islatu dute.
- Harremanen dinamika: zeharkakoa da proiektu guztiarentzat.

*Bereizketa otoizgilea* praktikatzerakoan lau fase dauden bezala (nondik abiatzen den adieraztea edo axolagabetasuna, argiak, itzalak eta deiak), garatu beharreko proiektuak ere honako dinamika hori izatea proposatu genuen:

- Lehenengo unea: Loiolaetxeako egungo errealitatea aztertzea, analisi kuantitativoaren bitartez.

- Bigarren eta hirugarren unea: Loiolaetxeako bizipenaren “argiak eta itzalak” identifikatzea, eztabaidatzeko taldeen bidez eta proiektuko protagonista diren pertsona eta agenteei elkarrizketak eginez.
- Laugarren unea: kontuan izan beharreko *deiak* identifikatzea, prozesuan parte hartu zuten “aktoreekin” elkartuz.

Agiri honen bidez lehenengo hiru unehorien aurkezpena egin nahi da, eta honako hauetarako balio dezake: batetik, hamar urteko ibilbidean Loiolaetxean izandako bizipenaren errealitateari argazkia ateratzeko; eta bestetik, lehenengo egiaztapenak edo ondorioak aurreratzeko, goian aipatutako laugarren unearentzat oinarri izan daitezkeenak.

Lan hau garatzeko, metodo kuantitatibo eta kualitatiboak nahastea erabaki dugu, hala nola azterketa estatistikoa edo Ikerketa - Parte Hartze ekintza.

Aitortu beharra daukagu errazagoa izan ohi dela teoria paper gainean adieraztea lan-eremuan garatzea baino, batez ere tresnei dagokienez; esate baterako, banakako elkarrizketak, eztabaida-taldeak edo hitzaldien azterketak. Eta lan honetan ezin zitekeenez salbuespena izan, “sormen metodologikoa” erabili behar izan dugu eta datuak “eskuz” aztertzea beste aukerarik ez dugu izan. Hala ere, esan behar dugu saiatu garea metodologia ahalik eta egokien erabiltzen.


Lan honen aurrekariak aurkeztuta, uste dugu beharrezkoa dela metodologia nola garatu den argitzea. Lan honen asmoa da oreka sortzea, estatistikoki egiaztatu daitezkeen datu kuantitatiboek emandako informazioaren eta elkarrizketetatik eta parte hartu dutenen eztabaida-taldeen zein Loiolaetxeako erakundearen hausnarketetatik lortutako informazio korapilatsuaren artean. Saiakera horren ondorioz, hiru gune semantiko (ezberdinak baina aldi berean osagarriak) aurkezten saiatu gara, azaleratutako den zentzu-unitate bakarria sortzeko asmoz .

Ahalegin hori dokumentu honen egitura bertan ikus daiteke eta horri buruz hitz egingo dugu. Dokumentua hiru bloke ezberdinetan egituratuta dago eta, amaitzeko, “Intuizioak-egiaztatzeak” deituriko atal bat dago ondorio nagusiak adierazteko.

*Lehenengo blokea* Loiolaetxeako proiektuaren hasierari eta ezaugarriei buruzkoa da. Beraz, Loiolaetxeako lehenengo aldiaren parte hartu duten “aktoreekin” egindako hausnarketan testua eta hitzak aztertu dira proiektuaren beraren dokumentazio-iturrietatik lortutako datuen azterketa estatistikorekin batera.

*Bigarren blokearen* xedea da esperientzia honi bizia eman dioten eta nola edo hala bertan parte hartu duten pertsonen bizitzan egindako bideak berregitea. Bereziki nahi izan dugu protagonistek beraiek berregitea bideok. Horretarako, larrialdi-testuaren metodoaz baliatu gara eta elkarrizketa zein eztabaida-taldeak erabili ditugu, elkarrizketak

egiteko gidoia erdi egituratua izan dugularik. Elkarrizketa eta eztabaida-talde horiek gauzatzeko, eredu aukeraketa egin zen. Aukeratzekoan kontuan izan genituen elementu aldakorak, hala nola erabilerratasuna eta bizi-prozesuen egoera. Beheko grafikoa ikus daitezkeen moduan, espero baino jende gehiagok hartu du parte.



Horren guztiaren emaitza dira *Beraien ahotsak*. Hor adierazten denez, bizipen batzuk komunak dira, baina bakoitzak bere berezitasunak ere baditu. Beraz, beste behin ere ikus dezakegu Loiolaetxea askotariko lekua dela eta bertan ezaugarri ezberdin asko daudela, baina beti ere egitura komun baten barruan.

Testuak bost ardatz telematikotan antolatzea erabaki dugu:

- *Ametsa zein zen:* atal honetan, Loiolaetxeako esperientzia bizi izan dutenek leku horretako xede komunaren inguruan izandako zirrarak zehaztu eta adieraziko dira.
- *Nolako bizitzarekin joan garen:* atal hau Loiolaetxean egon diren pertsona ezberdinak bereizteko da; Loiolaetxeara iritsi aurretik bizitakoa kontatuko dute lehenengo pertsonan. Horrela baino ezin baitzaio testuingurua jarri “Loiolaetxeako ametsaren” zergatiari.
- *Bidean lagun izan ditugun eskuak:* lan honen prozesuak iraun duen bitartean, honako hau egiaztatu genuen beste zenbaiten artean: Loiolaetxeara “iritsi egiten zara”, zure bila ateratzen den lekua baino gehiago, “babesten” zaituen lekua da. Beraz, garrantzitsua iruditu zaigu adieraztea zein edo zer diren unehorien jakin batean Loiolaetxea eta han egoten diren pertsonak harremanetan jartzen dituzten bitartekoak
- *Etxean:* lan guztian zehar jaso ditugun metaforen artean, gehien errepikatzen dena “etxeari” buruz hitz egitea da. Loiolaetxean bizi izan direnek emandako iritziak jasotzen ditu epigrafe honek.

- *Loiolaetxearentzat etorkizun batekin ametsetan*: baliteke proposatutako epigrafeen artean gehien pentsarazten duena eta bizitakoa gutxien adierazten duena izatea, *Zer hobetu daiteke Loiolaetxean?* galderaren erantzuna baita. Hala ere, badu bere garrantzia esperientziari dagokionez. Izan ere, bizi izan dutenaren arabera norberak egindako hausnarketak dira eta uste dugu ekarpen horiek oso garrantzitsuak direla. Hona hemen bloke honi buruz aipatu behar litzatekeena: batetik, esan behar dugu ez ditugula jaso elkarrizketetako ekarpen guzti-guztiak; ildo beretik doazen “gaiak” aukeratu ditugu, horien bitartez Loiolaetxeako esperientzia orokorrean islatzeko. Ezin dugu esan gabe utzi datu pertsonalak (izena, jatorria, harremanak, adina, etab.) aldatu egin direla parte hartu dutenen intimitatea gordetzeko. Adin taldeak eta taldeen erreferentziak soilik mantendu dira (egoiliarra – BK – boluntarioa - langilea) hitzaldian nahasgarri gerta daitezkeen elementu batzuk argitzeko. Gainontzean, testuen edukia osorik errespetatu da, fonetika ere bai.

Azkenik, *hirugarren blokea* daukagu. Horren helburua da Loiolaetxeako esperientziak gizartean izan duen oihartzuna eta eragina aztertzea. Izan ere, Loiolaetxeatik gizarte-sarearekin lanean aritzen dira eta harreman estua daukate, xede berarekin aritzen baitira: gero eta jende gutxiago baztertzea eta gero eta gehiago gizarteratzea. Horretarako, erakunde eta elkarte batzuek egindako hausnarketetan adierazitakoa aztertu da alde aurretik prestatutako galdera-sorta baten bitartez eta dinamismo zein koordinazioko dokumentuen laguntzaz.



# I. BLOKEA

## SUSTRADUN DEIALDI EMANKORRA

### LOIOLAETXEAKO ESPERIENTZIA: HASIERA ETA BILAKAERA

#### INSPIRAZIOA

#### AURREKARIAK. AMARENKO ESPERIENTZIA

##### ■ Hitzaurrea: gizartearen, elizaren eta hiriaren mugimenduak

70. hamarkadan, fededun eta laiko asko irten ziren hiriguneetatik auzoetara; erakunde handietatik plataforma txikietara; elizaren salbazio hizkeratik gizartearen askatasun hizkerara; komunitatea garatuko duen bidera, batzuk beste batzuekin elkartzeko eta gizarteratzearen alde egiten duen gizarte eraikitzailearen alde borrokatzeko.

Belaunaldi horiek, baldintzarik gabe boluntario moduan arituz, transformatu egin zuten bizitza erlijiosoaren eta laikoaren paisaia. Beste tonu batzuekin margotu zituzten hainbat auzotako paisaiak toxikomaniaren, guraso bakarreko familien, askatasunik gabeko pertsonen eta abarren alorretan.

Komunitate erlijioso eta gizarte-talde batzuk, beraien karisma humanarioena zela-eta, leku garrantzitsu bihurtu ziren gizartearentzat; izan ere, jende asko atxikitzen zitzairen, bilerak egiten zituzten eta hazteko zein emantzipatzeko prozesuak babestu eta zaintzen zituzten.

Horien artean aurki dezakegu Intxaurrendoko (Donostiako) *Amarena* abegi-etxea 1997an, Martuteneko espetxetik baimenarekin ateratzen zirenentzat sortutakoa. Etxe hartan familiarik edo lagun minik ez zeukatenei bizitzeko leku bat eta janaria ematen zitzairen. 30 urteren ondoren, esan dezakegu justizia eta militantziaren aldeko konpromisoaren bitartez, esperientzia erlijioso eta laiko onenak sustatu dituztela, baita bide ebanjeliko emankorrenak ere.

*“Erbestealdiaren eta kanporatzearen espiritualtasunetik gizarteratzearen espiritualtasunera igarotzearen” ondorioa zen.*

##### ■ Bidea, esperientzia, sortzea

Donostiako Martutene espetxean zein haren inguruan egindako udako lan-eremuek eta Gipuzkoako Elizbarrutiko Espetxeetako Pastoraletako boluntarioek lagun talde bat bildu zuten aldizka Martuteneko espetxera joateko.

Bertan *“erbesteratze esperientziak”*, etorkizunik gabeko bide zalantzarriak, aurkitu dituzten, baina baita itzaropena ere. Esperientziak erakutsi dienez, “Jainkoak ate bat ixten dizunean, leiho bat irekitzen dizu” eta aberastasunak, eta aldi berean baita bidean aurkitutako oztopoek ere, ziurtasunera eramaten ditu hau da, beste ate bat irekitzera:

*Donostiako Udalak Espetxeko Pastoralari utzitako abegi-etxea. Amarena proiektua 1997an jaio zen babesik eta baliabiderik ez daukaten askatasunik gabeko pertsonen espetxeetako eskubideez goza dezaten eta birgizarteratzeko bidea has dezaten. Tes-tuinguru hori eboluzionatuz sortu da gure proiektu berria.*

*Hasiera batean, “BERSE” izena eman zitzaion, baina gero “Loiolaetxea” deitu genuen. Espetxean “gizarteratze-komunitatea” behar dutenak etxerik ez daukaten (edo “euren” etxean lekurik ez daukaten) pertsonak dira: familia desegin delako etxerik ez daukaten “nazionalak”, euren etxea urruti daukaten “atzerritarrak” eta, sarritan, Europar Batasunean egoitza baimena lortzeko eskubide “naturalik” ez duten etorkinak (horrela izan ezean, logikoki euren etxetara itzultzen dira ahal dutenean, baldintzapeko askatasuna lortzen dutenean, alegia).*

Amarenako proiektu horretan bi urtez aritu ondoren, funtsezko galdera egin behar dugu: **Nola dago Amarena gaur egun?**

Egunen batean zenbait lekutan guztiok guztion adiskide izatea amesten dugu. Desio horretatik sortu zen eta gure etxearekin hasi ginen. “Elkarrekin bizi”, horixe litzateke bizikidetzaren espiritua. Bizirauten duen jendearekin aritzen gara.

Diamante gogor eta hauskorak dira; bizirauteko gai diren arren, oso kaltetuta daude. Askok bizi izan dute, baina ez dituzte esperientzia onenak bizi izan, maitatzea eta maitatuak izatea, alegia.

Elkarrekin bizitzeak etengabe han egotea eskatzen du. Urteko 365 egunetan 24 orduz arriskuan bizitzen ikasi behar dugu eta muturreko egoerak bizi behar ditugu. Zer egokituko zaigun jakin gabe bizitzeko espiritua da.

### ■ Amarena proiektuan hasiera batean proposatu eta garatu zen antolamendua (gutxi gorabehera)

Hasieran pertsona bakarria arduratzen zen *etxearen zuzendaritza-animazioaz (Txabu)*; gero, 1998an, laguntzaile talde bat gehitu zitzaion (boluntarioak), dozena bat. Baina boluntarioak oso gutxi egoten ziren etxean (bazkari edo afari bat astean) eta, beraz, horien erabakiek ez zuten eragin handirik izan; azkenean, 1999ko uztailan, beste bi boluntario hasi ziren astero txandak egin eta etxean lotan gelditzen. Beraz, gehiago inplikatu behar zuten, harreman gehiago izango zuten, informazio gehiago ere bai, eta erabaki gehiago hartu ahalko zituzten.

### ■ Ekipo gisa lan-harreman egitura bi erabili dira

*Lehenengoari dagokionez*, boluntario talde osoa hileko azken larunbatetan biltzen da; goizetan lau orduz elkartzen dira labur-labur otoitz egiteko, iritzia emateko, informatzeko, trebatzeko eta erabakiak hartzeko. Gehienok elkarrekin bazkaltzen dugu ia beti. Behin gogo-jardunaldia egin genuen bilera batean. Baliabide horrek elkarren segidako bi urtetan funtzionatu du. Baina komunitate-proiektua aurrera joan ahala eta hasierako babes-proiektutik haratago joan den heinean, eta bereziki, hiru boluntariok euren burua etxean lotan gelditzeko segituan eskaini zutenetik (bertan bizitzen gelditzeko gogoia adierazten zuen horrek eta denboraldi batez lotan gelditu ondoren egingo zuten hori), boluntario taldea bi mailatan banatuta geratu zen, bakoitzak lan egiteko eta laguntzeko zeukan gogoaren arabera. **Zertan lagun dezakete “astean behin bazkaltzera joaten diren” boluntarioek etorkizuneko “bizitzaren eta babesaren komunitatean”?**

*Bigarren* egitura berria da eta asteazkenetan birritan elkartzean datza; geroko komunitatean biziko diren lau hautagaiak *afaldu aurretik* biltzen gara ordubetez (hiru pisuan gelditzen gara lotan). Elkartzen garenean, etxea nola dagoen baloratu eta *afalostean* Amarenako pisuan bizi direnekin egingo dugun bilera prestatzen dugu (beti atzekoz aurrera). Egitura horrekin, edo antzeko batekin, jarraitu beharko du etorkizuneko komunitateak. Asteazkenetan elkartzen garenean bi auzi izan ohi ditugu jorrazteko: 1) Egoiliar bakoitzaren *etxeko lanak* (asteka eta hilaletak): jatorduak, erosketak, garbiketak, konponketak, etab., hurrengo asteburuan etorriko direnen aurreikuspenekin batera (baimenak), logelak eta etxeko zein (batzuetan) laguntzeko ardurak banatzeko. 2) Ahal dugun moduan heltzen diegu etxean izaten ditugun pertsonen arteko gatazkei eta gatazka orokorrei (batzuetan larriak izaten dira). Arduradunaren eta erabiltzailearen arteko harremana eta esku hartzea (pribatua) ondo atera izan dira beti (euren erara). Baina gaur egun, eta horri uko egin gabe, benetan pribatua ez den gutxia taldean konpontzen saiatzen gara, esate baterako egoiliarren arteko gatazkak eta baita gai ekonomikoak ere, zuzenean etxearen mantentzearekin lotuta daudenak, erabiltzaileak (gehiago) inplika daitezten.

### ■ Etxean arau batzuk bete behar dira:

*Lehenengoa. Etxean ez da drogak hartzen dituen inor egongo* (horretarako daude errehabilitazio-zentroak). Alkohola edaten dutenei dagokienez, honako baldintza hauek betetzen dituztenak onartuko ditugu: Alkoholiko Anonimoak elkartarekin harremanetan daudenak, alkoholaren aurkako medikamentuak hartzen dituztenak, irteten direnean kontrola eta laguntza dituztenak. Ludopatia daukaten edo ez berruan ikusiko da.

*Bigarrena. Gure ardurak da eskusiboki pisuan sartzen den jendea kontrolatzea*, bai egoiliarrek (egonkorrek zein aldi labur baterako daudenak), bai gonbidatuak (egoiliarren lagunak, baldin badituzte, otorduren bat egiteko edo kafetxoa hartzeko bisitan etortzea bultzatzen dugu). Beraz, baimena eskatu beharko da alde aurretik.

*Hirugarrena. Buruko gaixotasunei dagokienez* (neurri batean), *medikuak esandakoa egingo da*.

*Ez nintzen ausartu indarkeriaren inguruan araurik jartzera, ez bainekien nola adierazi aplikatu ahal izateko. Pertsona bakarria kaleratu dugu indarkeria dela medio. (Pisuan, espetxean eta kalean bezalaxe, indarkeria asko egon daiteke ezkutuan, fisikoki adierazi gabe).*

*Laugarrena. Arau honi buruz taldean hitz egin da eta, oraingoz, taldearentzako “abisua” da, baina arau hori ezartzea pentsatu beharko genuke. Egoiliarren eta (kanpoko) boluntarioen arteko erlazioei buruzkoa da (ez dugu arazo larririk izan: mesedeak, bikoteka irtetea... Guztiak ere boluntario “hasiberriren” baten heldutasunik ezak eta “xalotasunak” eragindakoak). Arauaren arabera, ekipoa kaleratuko da (epe labur edo luzerako), baldin eta ekipoa edota komunitatearen baitan bikote-harremanak badaude. Arauak, inplizituki handituz joan denak, ez zuten eraginik izan Amarenan izateko edota eskubidezko bikoteak onartzerakoan.*

*Bosgarrena. Garrantzitsua (eta gatazkatsua) den atal bat, nolabait esatearren, era “berezian” normalizatu da. Etxean jateko edo ez jateko beharrari buruzkoa da. **Posible izango al da Txabuk ezarritako ohitura hori egitura handiago batean mantentzea etorkizunean?***

*Seigarrena. Aldi berean, Amarenak Martutenetik pisura irteerak erraztu ditu (batzuetan estali ere bai). Egia esan, presoek hotel batean edo familiaren edo lagunaren etxean amaitzen dute. Hori bai, aurretik alde bien artean adosten dute (argi eta garbi), baina, orokorrean, espetxeak ez du ezer jakiten (eta batzuetan abokatuekin akordio batera iristen da). **Alor bereko beste talde batzuek (GKEk) egin ohi duten moduan, beharrezkoa izango al da gaua etxean ematea gure kabuz irten nahi dugunean?***



## LOIOLAETXEA PROIEKTUAREN ELIKAGAIK

### ■ Hausnarketa etorkizuneko “Loiolaetxea” proiektuaren inguruan

Txabu sj-k gogoratzen duenez, 1999ko maiatzean, Manurekin hitz egin ondoren, hauxe idatzi zen: **Nolako proiektua nahi genuen?**

*“SJ komunitate bat, jesuitak ez diren beste “kide” batzuekin partekatzen dutena eta bizi dena; intelektualki, bizipenei eta fedeari dagokienez, truke bitxi hori guztien onerako izango dela ziur dakien komunitatea. Bi hautagai mota aurreikusi ditugu, baina oraingoz, honako galdera honekin: Denak gizonezkoak?”*

### ■ Hausnarketak “Loiolaetxea” proiektuan parte har zezaketen pertsonen inguruan

1) Espetxetik datozenak, etorkinak, edo biak batera, baldin eta euren inguruko gizartea eta familia normala ez bada eta gizarteratzeko arazoak badituzte (birgizarteratzea, legezatzatzea). Drogazaleak proiektutik kanpo geldituko dira.

2) Gizarteratutako pertsonak, espiritualtasun ariketen bitartez komunitatean bizitzeko esperientziaren bila dabilzanak (jesuitak izan ala ez izan)”.

Galdera berri bat sortu da: **Norekin egin nahi da komunitatea?** Eta Txabu sj-k, hauxe gogoratu du:

*Amarenan izan dudana esperientzia apalak erakutsi dit atzerritarrek ez direnek egonkortasun gehiago dutela fisikoki (hau euren herrialdea da, euren hiria). Beraz, horrek posible egiten du (denbora ematen du) harremanetan jartzeko eta, horrela, gizarteratze “positiboa” lortzeko aldaketa eta helduek sortzen dira. (Egia esan, ez nago oso ziur esaten ari naizenaz).*

*Atzerritarrek, aldiz, beraien egoera pertsonalari duena baino garrantzi gutxiago emateko joera dute; “besterik gabe paper kontua (legalizazioa)” edota lana bilatzea dela esaten dute. Ondorioz, oso zaila da beraiekin bizitzea, ia-ia ez baitute elkarrekin bizitzeko premiarik “sentitzen” (ezta ohitura eta baloreak barneratzeko premiarik ere, baldin eta horiek ez badaude zuzen-zuzenean lanarekin lotuta). Zentzu horretan, uste dut “hemengo taldea” “koltxoi” ona izan daitekeela etorkinen taldearentzat, eta ez alderantziz.*

*Amarenatik (bertan badago jada babesteko komunitate txiki baina erreal bat, hobeto esanda gune bat), gaur egun, animatuko nintzateke poliki-poliki “bartzertuak” izan diren pertsona gehiago ekartzera etxera (etorkinek, adibidez, lehentasuna izango lukete). Egin ere halaxe egin dugu orain arte.*

*Martuteneko espetxean orain arte egin dudana lanari esker, oso ondo ezagutzen dugu elkar etorkinek (aske gelditu direnak) eta nik, eta hori oso baliotsua da. Lotura hori giltzarria izaten ari da. Izan ere, babes-komunitateko (Amarenako) alde biek aukera horri lehentasuna ematen diote espetxetik ateratzen direnean. Beste etorkin (edo etorkinak ez diren) askok irteterakoan euren kasa moldatzea erabakitzen dute. Horrek esan nahi du Amarenara etortzea eskatzen duenak alde aurretik erabaki duela delitua alde batera utzi eta bizitza berri bat hastea (edo behintzat saiatu egin nahi du), eta hori funtsezkoa da elkarrekin bizitzeko. **Nola ordezka dezakegu ezagutzeko eta elkarrengan konfiantza izateko “aurreko fase”, hori espetxean harremanik izan gabe?***

### ■ Hausnarketak “Loiolaetxea” proiektua gauzatzeko dauzkagun baliabideen inguruan

**Idea.** *“Proiektu hau garatzeko dago, bai teoriari dagokionez bai praktikari dagokionez ere. Ez daukagunez “jarraitzeko beste eredurik” (handik gutxira ezagutu zuen Julian Rios), proiektuaren garapen teorikoa eta praktikoa eskutik joango dira: proiektua – ekintza (saioa) – hausnarketa – beste ekintza bat. Proiektuarentzat dei eta orientazio espezifikoa etengabe Lagundi bertatik eta, beraz, konfiantza (ziurtasuna) eta gogoia (larrialdia) erronkaren aurrean.*

**Pertsonak.** Goian gizarteratutzat hartu ditugunak, “horrelako misioetarako edo lanetarako sentikortasuna, gogoia eta esperientzia dutenak”; eta hausnartzeko eta ikertzeko taldeak.

**Ekonomikoak eta materialak.** *Ba al daukagu etxerik erabiltzeko moduan?: Zabalbide, Matiko, Mazarredo, (La Peña). Badirudi Altzako komunitateak, adibidez, baldintza “bikainak” betetzen dituela, “desioetatik” hasita, “komunitate solidario” batean bihurtzeko (“bilakatzeak”). “Herriko parrokiak” (Uretamendi, Tuter, Portugalete)?*

*Zer egin behar luke Alboan elkarrekin proiektuan? Alboanek 3. munduagatik “zerbait gehiago” egin nahi du 1. munduan, hau da, 4. munduan? Amarenak, “saio” moduan, 3. Munduarekin espetxean konektatzen du, ez kalean. Eta ez da berdina (baina ez nago ziur horren ezberdina ote den).*

### ■ Hausnarketak “Loiolaetxea” proiektuaren kokapenaren inguruan

**Aurka.** *Amarenak (Intxaurrondoko etxeak) ez ditu betetzen proiektuaren baldintzak eta... juridikoki “persona bakarrek” egitura da, Martuteneko kapilauaren mende da goena. Hala ere, eta Amarenako egungo errealitatea (proiektua baino gehiago) behin betiko bartzertu baino aurretik, ezin daiteke (zentsuz) pentsatu zerbait aldatzea egitura juridikoari dagokionez? Nik sarritan pentsatu dut Amarenarako oinarri juridiko bat sortzea; bertan Martuteneko espetxe-pastoralean egun dauden erlijio-ordenak egongo liriteke,*

proiektuarekin lotuta egon nahi dutenak: Pauldarrak, Jesusen Alabak, San Vicente de Paul Karitateko Alabak, Santa Anaren Karitateko Alabak (oraingoz espetxe gunean bizi diren "Anak") eta gu, jesuitak. Egia esan, erronka "ekumeniko" bereziak balioa izateko, zerbitzuaren xedea ez litzateke baztertu behar; eta aterako balitz, bultzada paregabea izango litzateke proiektuaren xede orokorarentzat.

**Alde.** Muturretatik ihes egitea, ez Las Cortesen ("istiluetara" itzultzea litzateke) ezta Negurin ere (eredu eskuraezina, lapurtzera "bultzatzen" du), "ghettoak" saihestea (leku bakartuak edo etorkinen "babeslekuak"); oro har euskaldunak diren guneak saihestea (ez, hala ere, "boto nazionalista" dutenetatik). Hau da, "jende arruntarekin" zenbat eta gehiago egon, hobe.

### ■ "Loiolaetxea" proiektuaren kokapenari buruz hausnartzerakoan kontuan izan beharreko beste gai batzuk

#### Bilbo, *aldi baterako edo behin betiko?*

**Alde:** Jesuita eta ko-jesuita (boluntario) gehiago, proiektuaren motorra, alegia. Halaber, biztanle gehiago eta, beraz, suposatzen da, baita erabiltzaile gehiago ere (presoak eta etorkinak). Alor horretan aritzen diren GKE gehiago.

**Trabak:** Konexio ona egin behar da Basauriko espetxearekin eta nire ustez ez da lan erraza. Gainera, uste dut denbora "asko" beharko dugula (espetxean mesfidatiak dira).

**Oharra:** Basaurirekin egingo litzatekeen konexioak ez du esan nahi Martutenerekin harremana etengo litzatekeenik. Halaber, gero ikusi beharko litzateke nola egon gaitzkeen Langraitzen ere.

1999ko ekainaren 30ean proposamena egin zen Villa-Bersek (Loiolaetxeak) dituen abantailekin eta desabantailekin. Etxeberse deitzen hasi ziren.

### ■ Hausnarketak "Loiolaetxea" proiektuaren gakoan inguruan

Aitor dezakegu "**arrakastaren**" gako kontrolpean daukagula (ia-ia bere osotasunean): jesuiten komunitatearen hasierako guneari buruz ari naiz. Bertako kideak askatasunez aukera daitezke (Gizarte Batzordetik?), sj hautagaiak beraiek ere aske izango direlarik (baldin eta "desio" badute).

Gune eragile horren kalitatea da hasteko eta amaitzeko daukagun berme bakarra: euren arteko harremanak; entzuteko duten gaitasuna; (frustrazioetara eta abarretara) egokitzeko duten gaitasuna; proiektuan funtsezkoa den "ametsa-gonbidapena-deia"ri leialak zaizkio,

eta abar). Proiektuaren sj hautagaien eskatzen zaizkien baldintza "psiko-espirtualei" (Pro-bintzialari igorritako proposamen-testuan txertatuta daude) beste baldintza batzuk gehitu behar litzazkieke: "fisiko-materialagoak" diren baldintzak, aurrekoen balioa "frogatuko" luketenak. Gure gakoek ez lukete tentsiorik edo areriotasunik sortu behar komunitateko beste bi guneak diren laikoen eta erabiltzaileen itxaropenekin.

### Ze proportzio (zenbakitan) emango diegu aurreikusitako bizpahiru talde edo guneei (jesuitak, laikoak eta "babestutakoak")?

**Jesuitak.** Bost gara. Egia esan uste nuen Etxeberserena hasieran ez zela horrenbesteko izango (espero nuen laikoren bat edo beste gurekin egotea). Zentzu horretan, sj komunitate gune bat izatea oso pauso erraldoia iruditzen zait eta pozten naizen arren, ezustean harrapatu nau.

**Espetxeko jendea:** hasteko, 3 pertsona "lapurtu" ditugu; eta lehenengo urtean zehar beste bat edo beste, etxeko giroa eta estiloa zehaztu arte (irizpideak, ohiturak).

### ■ Hausnarketak Loiolaetxea proiektua martxan jartzeak sortzen dituen kezken inguruan

**Hautagaiak.** Martutene, **z**nahikoa **hautagai** **dauzka** **gurea** **bezalako** **proiektu** **batentzat?** Ezetz uste dut. Gertuago ere badauzkagu beste espetxe batzuk atea jartzeko. Espetxearekin jarraituz, Espetxeetako Lege Berriak aukera berriak eskaintzen ditu betetzeari dagokienez; horretarako prestatu behar ginateke. Udal-aterpetxeetan hautagaiak aurki ditzakegu (egia esan, ez al dira Etxeberse sartzeko hautagai posibleak "La farola" saltzen dutenak edo semaforoetan zerbait saltzen aritzen direnak?). Bestalde, etorkinen kolektiboa daukagu, nahiz eta hori polikiago pentsatu beharko dugun: zaila egiten zait imajinatzea bi kolektibo horiek "bakean" bizitzen, "erabat" ezberdinak direla uste baitute.

**Parte hartzea.** Egungo pisuan presoak daude, eta hori hobe da beraientzat, beraien hazkuntza-birgizartearentzat. Neurri handi batean, Amarena "euren" etxea da (aldi baterako etxea). Proiektuari beste komunitate (bikoitz) bat txertatuko balitzaio, horiek, kasu honetan, asko irabaziko lukete. Izan ere, ohiturak, balioak, zentzuak eta gogoia oraindik gehiago bultzatuko liriteke giro horretan. Preso ohien taldeak, aldiz, protagonismoa galduko luke, baina hori euren mesedetan ere izan daiteke, parte hartzen jarraitzen badute, noski. **Lortuko al dugu oreka onargarri eta egokia? Zaila izango da, baina behar-beharrezkoa ere bai.**

**Eragozpenak.** Etxearen bizigarritasunari dagokionez (asteburuak, hasieran), **guk, jesuitok, logela aldi baterako beste kide batekin bana dezakegu edo banatu behar dugu?**

*Komunitatean beti egon da gaixoren bat. Agian gaixotasuna ezkutuan dago, baina baliteke kutsakorra izatea (seropositiboak, hepatitikoak, etab.). Higiene-neurri komunek (zorrotzak dira guztientzat) ezingo dituzte barrukoen harremanak "neurotizatu". Gaur egun jatorduen kalitatea (eta kopurua) ezberdina da, eta gutxitan izaten da altua (gure ohiturekin erkatuz gero); noizean behin urrutiko herrialderen bateko "janari nazionala" izaten dugu. Ospakizun handietan izan ezik, jatordua plater nagusi bat eta postrea izaten da eta, batzuetan, hasierako txiki bat (entsalada). **Zer deritzogu? Eta, noski, neskamerik ez badago, nork lisatuko dizkigu alkandorak...?** Pribatasuna dela-eta asteburuak lasaiagoak izatea espero izaten dugun arren (horixe behar izaten dugu, antsiar desiatzen ditugu —gogoan izan antsietatik eratorria dela hitz hori— egoten gara), oso deserosoak izan daitezke. Agian txandak antolatzea litzateke irtenbidea. Nolanahi ere, komunitatearekin bat egingo duen jesuita edo laikoa prest egongo da etxea berak bakarrik kudeatzeko. Hilean behin 24 orduz eta urtean asteburu oso batez egingo du. Komunitatean bizitakoak erakutsiko dizkio horretarako jarraibideak. Baliteke hautagaiak onartzerakoan hori izatea kontuan gehien hartuko den baldintza.*

## LOIOLAETXEA. BIZITZAREN ESPERIENTZIA BIZITZATIK

### ■ Loiolaetxea dohaina da Mt 11, 25-30

2000ko udazkena. 3 jesuita: Txabu, Txema eta Diego. 2 laiko: Yoli eta Miguel. Espetxe inguruko hainbat pertsona: Iñaki, Alex, Xabi, Nourdime, Manu. Lehenengo familia (Carlos, Rousmeri eta Valery txikia) Loiolaetxea proiektuarekin bat egiten ari dira eta udazken hartatik 2010era arte 305 pertsona pasa dira Loiolaetxeatik; horietako 50 *gizarteratutako pertsonak* jesuita eta laikoen artean, 144 datuen erre- gistro bidez zenbatuak eta 111 3 *alor jakinen arabera zenbatuak: espetxeko jendea, baztertuak eta etorkinak*.

Loiolaetxea komunean bizitzeko esperientzia baten ideia, desioa, bihozkada zen jaio zenean eta garatuz joan zen bizitzeko proiektu bihurtu arte. Gaur egun Loiolaetxea bizitzeko komunitatea da, eta ez litzateke hala izango bizitzeko aukera bat egin duen taldea gabe: etengabe han bizi diren jesuitak eta laikoak; euren bizitzeko modua aukeratu duten laiko eta lekaiameak (nahiz eta ez diren bizi teilatu beraren azpian); misioan parte hartzeko kontratatu diren pertsona liberatuak; boluntario eta laguntzaile talde bat; espetxean egon direnak edota gizartean baztertuak izan direnak. Azken horiek dira elkarrekin familia bat, bizitzeko komunitate bat, Erreinuko edo kulturen eta erlijioen arteko giza anaitasunaren parabola (zalantzarik gabe mistoa) mantent- zera eta osatzen jarraitzera eramaten gaituztenak. Bizitzeko komunitate zabal honek, harremanak izateko moduagatik eta familia osatzeko duen eragatik, sendatzeko eta terapia egiteko balio izatea desio du.

Loiolaetxea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutako zerbitzua da; hasierako al- dian egonaldi ertainerako (9-12 hilabete artean) babes eta laguntzarako abegi-zentroa da eta, beharrezkoa bada, gizarteak baztertu dituen pertsonentzat beste horrenbeste iragate al- dian. Lehenetasuna izango dute Gipuzkoako espetxeetan daudenen artean abegi-etxea erabiltzeko premia dutenek eta laguntza behar dutenek.

2000ko udazkenean martxan jarri zen komunitate-esperientzia honen prozesuan zehar ikusi da egiteko eta egoteko modua agintzeko beharrezko ebolutiboa dagoela. Horretarako, talde teknikoak sartzen joan gara funtzionatzeko 5 alor zehaztu eta gara ditzan. Alor bakoitza bere erara garatuko da.

*Loiolaetxea eraiki behar den lekua da eta horretarako, bakoitzak bere onena eman behar du.*

### ■ Loiolaetxea eraiki behar den lekua da eta horretarako, bakoitzak bere onena eman behar du. Lk 12, 22-34

#### Bizitzeko Komunikatearen Alorra

Loiolaetxearen asmoa da banakoen hazkuntzari lagunduko dion familia handi bat izatea. Bizitzaren eta familiaren erreferentziak berriro jaiotzeko eta berreskuratzeko lekua izan nahi du, "humusa", haztegia; izan ere, askok eta askok erreferentzia horiek ez dituzte sekula eduki edo porroten edota hausturen erruz galdu dituzte.

Loiolaetxea ez da ez aterpetxe bat ezta ostatu bat ere. Gune fisikoak partekatzeaz gain, etxe honetan familia bereko kide izan nahi dugu eta elkar zainduko dugu eta bata besteaz arduratuko gara. Pertsona bati galdetu genionean zer irabazten zuen komunitate honetan biziz, hauxe esan zigun: "Nik badakit etxera iristen naizenean norbait zain izango dudala". Zentzu horretan Loiolaetxea sendatzen duen erosotasuna da, terapia egiteko balio du; izan ere, jendeak autoestimua handiagoa lortzen du, eta horrela, norberarentzat eta besteentzat duinak garelako ikusiko dugu.

*importante. No es lo mismo acompañar a una persona que está viviendo, que acompañar a una persona que se acerca dos horas, que probablemente no necesite más. Abrirse al voluntariado y cuidarlo mucho. Acompañar y contrastar mucho al voluntario, que igual ya lo estáis haciendo. Yo digo lo que viví para temas a resaltar. Habrá personas que apenas lo necesiten. Pero habrá personas que igual sí. No puede ser que haya gente que se sienta descolocada. Porque creo que es una experiencia muy fuerte por poco que se entregue el voluntario. Entonces, eso hay que acompañarlo de algún modo. No sé si os ha ocurrido como hay en los colegios, las asociaciones de antiguos alumnos. Yo creo que se podría generar en torno al Loiolaetxea un grupo de reflexión, de compartir experiencias. Creo que del grupo de toda la gente que hemos pasado, de algún modo mantener el contacto. Porque puede ser que el que ha vivido, al cabo de un tiempo decida ofrecer dos horas. Darle continuidad. Creo que la gente que nos acercamos al Loiolaetxea ya no estamos buscando un campo de trabajo. Que vas un tiempo de 15 días y ya está. La gente que se acerca creo que está buscando mucho más. Y es algo de por vida. En San Sebastián no hay muchos espacios más donde puedas... Que hubiera algún tipo de continuidad. Que pudieras, de algún modo, seguir en contacto aunque sólo fuera en el tema de reflexión. A mí me parece una pena que se desaproveche toda la experiencia que cada uno hemos tenido. La gran experiencia de lo bueno y lo malo. Todo eso se queda perdido”.*

**Mujer, voluntaria**

*“Una de las cosas que veo en Loiolaetxea es hay muchas personas que salen. Y aunque estén en el piso de transición, aun así hay personas que necesitan apoyo para toda su vida. Entonces, que pueda haber grupos de apoyo, puntuales o no. Que no sólo sea llamar al Loiolaetxea. Sino que pueda haber otros grupos de apoyo que estén en relación con el Loiolaetxea o la hayan tenido. Esa es un poco la visión que yo tengo de dar una continuidad. Porque además esto no sería sólo una cosa práctica. Sino que sería una forma de seguir extendiendo y manteniendo esa utopía, que no se corte. Que podamos seguir haciendo cositas”.*

**Mujer, voluntaria**

*“La novedad de Loiolaetxea está en la invitación a la paridad de las relaciones al interior de la Comunidad: entre personas inmigrantes y autóctonas, jóvenes y mayores, hombres y mujeres, privados de libertad y “libres”, creyentes y no creyentes, musulmanes y cristianos... en un auténtico diálogo de experiencias, saberes y valores que nos va enriqueciendo, liberando, reconstruyendo, potenciando, etc. Compartir la vida compartiendo los espacios de vida bajo un mismo techo:*

*Nos posibilita la individualización de los procesos personales, en base al descubrimiento de los proyectos personales que cada uno de nosotros y de nosotras llevamos, siempre en vasijas de barro. Esto hace que el acompañamiento se convierta en un camino largo, lento en apariencia, y muchas veces ineficaz, pero en el que la esperanza se abre paso de una manera siempre creativa y siempre nueva en cada persona y en cada situación.*

*Pero nos exige así mismo verdadera reciprocidad: no puede ser que a uno de los tres “colectivos” de Loiolaetxea le vaya bien a costa del otro o de los otros dos. Es decir, que nos hemos dado cuenta de que el peligro en Loiolaetxea consiste en que el colectivo de personas acogidas descansa a costa de los desvelos de laicos/as y jesuitas, establezca y mejore sus relaciones sociales a costa del empeoramiento por falta de dedicación de las nuestras, tenga acceso a espacios de cultura y ocio de calidad a costa de nuestra exclusión de los circuitos de cine, música, lectura... Esto, además de ser una alarma de la presencia del asistencialismo en el proyecto, es un catalizador de la baja calidad que todavía hemos logrado en la soñada paridad del encuentro en Loiolaetxea.*

*Por eso aquí no vale sólo el compromiso y el activismo por muy social que sea, o el éxito en los procesos de inserción, por muy liberador y transformador que resulte.*

*Ninguno de los tres colectivos demandamos de los otros que nos sirvan, aunque sea bajo el disfraz de la profesionalidad, la disponibilidad plena, el trabajo sin límite o el sacrificio propio; tampoco bajo el disfraz de la progresión exitosa por un determinado itinerario de inserción, o la liberación efectista, a la vista de los demás, de esclavitudes y miserias.*

*La demanda, al contrario, es de encuentro, de escucha, de relaciones de calidad, de ecología de vida, de espiritualidad, de ternura, de riqueza puesta al alcance de los demás. Necesitamos ser ricos en relaciones, en sentimientos, en afectos, en espíritu, porque eso y no otra cosa es lo que ponemos en juego en Loiolaetxea.*

*La caña cascada que no se termina de romper, y el pábilo vacilante que no se termina de apagar son una invitación al encuentro con la debilidad de las personas y los procesos, pero sobretodo con la dignidad que esas vidas encierran, y de la que brotan siempre propuestas e invitaciones de más dignidad y más vida. Creo que este proyecto tendrá siempre estas características, pero no sólo por el perfil de las personas de acogida, sino por la utopía de fraternidad, de mesa compartida, de inclusión a la que nos sentimos convocados.”*

**Hombre, Cv**

### III. BLOKEA

## LOIOLAETXEA, ADIBIDE BERDINGABEA EDO AUKERA IRADOKITZAILEA

## GURE KOMUNITATEA GIZARTEAN BISTARATZEA

#### SARRERA

Ezin izan gara gelditu Gipuzkoako lurralde historikoko gizarte-sareari tarte bat eskaini gabe; izan ere, Loiolaetxeak horrekin eta hortik lan egin eta kolaboratzen du, bazterkeria leuntzeari begira eta gizarteratzea lortzeko moduak aurkitze aldera.

Beraz, erakunde batzuk hartu ditugu orokortasunetik, plataforma orokorrakoak. Loiolaetxearentzat pribilegio handia da horiekin soinez soin lanean aritzea, orain arte azpimarratu dugun moduan, bazterkeriari aurre egiteko eta gizarteratzeak dir-dir egiteko, edo behintzat kolore pixka bat izan dezan.

Sare honetan parte hartzen duten pertsona batzuk ere esan nahi izan digute zertxobait erakundeen deskribapenarekin batera doan lan-esperientzia komunari buruz.

#### BIZIPENAK GIZARTE-SAREAREKIN ETA SARETIK

**LOIOLA PROBINTZIA HISTORIKOKO JESUSEN LAGUNDIA.** Loiolaetxea proiektuaren sustatzaileak izanik, Loiola Probintzia historikoko Aita Probintzialaren bisita jaso izan dugu gutxienez urtean behin (egun aldatzen ari dira).

**Azkeneko bisitaren memorialean honako hau esan zigun:** *Duela ia hilabete egin nizuen bisita kanonikoa Donostiako Loiolaetxea komunitatean. Bisita horretan une garrantzitsua izan zen, zalantzarik gabe, zuetako bakoitzarekin pertsonalki eta espiritualki elkartzeari. Ezer baino lehen, eskerrik beroena eman nahi dizuet ni zuen etxean harrengatik, zuen konfiantza eta gardentasunagatik, hain irekiak izateagatik eta harreman gizatiar zein espiritual aberatsa izateagatik. Harreman horretan zuen nahiak hauteman*

*nituen, ahulenen etorkizunari begiratzeko komunitatea eraikitzeo daukazuen gogoia, kon-tuan izanda Jainkoaren Erreinuaren zerbitzura bata bestearekin lan egiteko zailtasunak gainditu behar direla. Agindutako misioa gauzatzeko prest dagoen komunitatea zarete, gogo biziz eta indarrez. Misio horren helburua da Kristoren misioaren zerbitzariak izatea, proiektu itxaropentsu eta konprometigarri batekin. Honela esan badezaket, uste dut zuen lanarekin sormena bilatzen duzuela. Duela hilabete batzuk, Europako Probintzialak Aita Nagusiarekin egon ginen eta behin eta berriro esan zigun gure misioan sormen handia bilatu behar dugula. Eta Jesusen Lagundiari igorritako azken gutunetako batean aditzera eman zuen gai hori garrantzitsua zela Lagundia sendotzeko: “Jesuiten apostoluzari eta komunitateei buruz hausnartzerakoan, honako hitz hauek entzuten ditugu: Unibertsaltasuna, etorkizuna, aniztasuna, kultura artekoa, diziplina artekoa, muga, krisia. Termino horiek adierazten dituzten errealtate aberats eta konplexuak direla eta, sormen gehiago aldarrikatzen dugu. Zaituta dagoen gure mundu honetan zubiak eraikitzeo gai izan behar dugu; erraztasuna izan behar dugu ustekabeko egoeretan sartzeko, bihozberak izateko eta Kristori pozik jarraitzeo aukera berriei atea irekiz”. Beraz, ezin gara betikoarekin konformatu; “magis” bilatu behar genuke, hau da, premia garrantzitsuenen eta larrienen aurrean zerbitzurik handiena sormenetik, jende gehiagori eragingo dion eta luzaroan iraungo duen emaitza lortuko duen zerbitzua. Nire ustez, guztien artean bidea egiten ari zarete Erreinuaren eta behartsuenen zerbitzura egoteko; izan ere, harreman justuak ezartzeko konpromisoak “azkenekoen ikuspuntutik begiratzeko gonbidapena luzatzen digu, horiengandik ikasteko, beraiek bezala jarduteko eta beti beraien alde egiteko” (CG 35, D. 3 27 ZK.). Ez dezagun ahaztu nortasuna, komunitatea eta misioa kideak garela ulertzeko triptiko antzekoa direla (CG 35, D. 2 19. zk.). Ikusi dut konpromisoa hartu duen komunitatea zaretela, besteen premiei zabalik zaudetela, aldatzeko premia duzuela eta solidarioak zaretela.*

**MARTUTENENKO ESPETXEA – GIZARTE ZERBITZUAK.** Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak, Justizia Ministerioaren mende dagoenak, 1983ko uztailan estreinakoz kontratatu zituen gizarte-langileak, 1981ean onartutako Espetxeetako araudia bezetaz. Presoenganako, zigortuenganako eta baldintzapeko askatasuna dutenenganako zaintzari dagokionez, martxan jarri den laguntza profesionalaren erudia da. Orain arte Mesedeetako Patronatua arduratu da baldintzapeko askatasuna duten pertsonen eta laguntzen jarraipena egiteaz (senideen bidaiak, adin txikiko seme-alabentzako eskolabekak, baldintzapeko askatasuna dutenentzako diru-laguntzak). Gizarte-laguntzarako Batzordea deituriko erakunde autonomoa sortu zen probintzia bakoitzean. Sarritan Patronatuaren arduradunak egiten zituen Batzordeko idazkari lanak. Idazkari postu horretako hautagai izateko, behar-beharrezkoa da Espetxeetako funtzionario izatea... Loiolaetxeako esperientzia hasi aurretik ere, espetxe barruan zaintzen diren pertsonak bazuten harremanik, espetxetik ateratzerakoan gizarteratze prozesuari bide emateko.

**Esaten digute.** Gizarte-langileen taldetik. Hasiere-hasieratik dira harremanak onak eta hala izaten jarraitzen dute; zorte handia izan dugu eta koordinazio mota propioa

garatu dugu: batzuetan Loiolatxean eta besteetan Martutenen. Funtzionatzeko modu berezia duzue eta benetan eskertzen dizuegu; izan ere, horri esker lortu duzue jende ugari ateratzea hemendik. Urte dezente daramagu hemen barruan lanean eta hor kanpoan ateratzen den jendearekin lanean jarraitzeko prest zaudetela jakitea gauza handia da, ordaindu ezinekoa da “etxe” kutsua duen espazioa atontzen diozuela jakitea. Eskatzerik badago, bai zuei eta baita Konpainiari ere, esan nahi genizuke oraindik orain espetxearen inguruetan geratzen den jendeari laguntzeko baliabideak falta ditugula, besterik ezean hor geratzen direla eta egunetik egunera egiten duela euren egoerak okerrera. Ez dute baliabideetara iristeko aukerarik izaten eta zerbait lortzen dutenean, gutxira kaleratzen dituzte, ez baitakite arauak betetzen, eta horiek bete ezean berriz ere hemen bukatzen dute, edo are okerragoa dena, ez dituguinoiz gehiago ikusten.

**ESPEXTEKO GIZARTE-KONTSEILUA.** 2008an sortu zen espetxeetan esku hartzen duten erakunde sozialen zein gobernu kanpoko erakundeen eta Espetxeetako Idazkaritza Nagusiaren arteko lankidetzaren mekanismo garrantzitsu gisa. Espetxeetako Batzorde Sozialak deiturikoak dira horien muina, espetxe eta gizarteratzeko zentro guztietan. Donostiako espetxeari atxikitako Tokiko Espetxeetako Batzorde Sozialen zuzendaria, tratamendurako zuzendariordea eta 5 batzordekide daude Espetxeetako administrazioa ordezkatzen eta 7 erakunde sozial eta gobernu kanpoko erakunde hirugarren sektorea ordezkatuz: Proyecto Hombre, Agipad, Espetxeetako Pastoral, Iresgi, Gurutze Gorria, Arrats eta Loiolaetxea.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA – GIZARTERATZEA.** 2003an diru-laguntzak ematen hasi ziren eta 2004tik aurrera lankidetzaren hitzarmena sinatu zen Loiolaetxearen eta GFaren artean. Horretan honako hauek jaso ziren: zerbitzuaren ezaugarriak, zaindu beharreko jende kopurua, beharrezko giza- eta ekonomia-baliabideak, jarraipena eta urteko balorazioa.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA – AHOLKU BATZORDEA.** 2009ko azaroan Aholku Batzorde hau sortu zen Gipuzkoako lurralde historikoko gizarteratzeaz arduratzeko. Baztertutako pertsonen edo baztertzeko arriskuan daudenen eta bazterkeriarekin lotuta dauden erakundeen eta entitateen foro espezifikoak da, herritarren sektore honetako ongizatea lortzeko politikak eta jarduketak planifikatzeari eta jarraipena egiteari begira. Era berean, gizarte zerbitzuetan eskumena duen GFAko sailari atxikitako organo aholku-maila da. Honako egiteko hauek jarduera lagundu behar du: baztertutako edo baztertzeko arriskuan dauden pertsonen lotutako politika soziala diseinatzerakoan, martxan jartzerakoan eta jarraipen egiterakoan. Hona hemen batzordekideak: 5 kide eta 5 ordezko gizarteratzearen alorrean zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeak ordezkatuz; kide 1 eta ordezko 1 etorkinen elkartearen ordezkatuz; 2 kide eta 2 ordezko EUDEL ordezkatuz; 2 kide gizarte zerbitzuetan eskumena duen saila ordezkatuz; eta 2 kide eta 2 ordezko Gipuzkoako sindikatu nagusienak ordezkatuz.

**SARGI, GIPUZKOAKO ERAKUNDE SOZIALEN PLATAFORMA.** Izen honekin, 2005eko uztailan irabazi-asmorik gabeko erakunde multzo batek plataforma sozial bat sortu zuen,

Gipuzkoa mailan foroetan, batzordeetan, lantaldeetan, sareetan... ordezkatzeko. Gizarte-egoera ahulean dauden kolektiboen interesak eta eskubideak defendatzerakoan eta sustatzerakoan, erakunde sozialei lurralde mailan ikuspegia emateko premia zela-eta sortu zen. Hona hemen gaur egun Sargi osatzen duten erakundeak: Acasgi, Agipad, Arrats, Askagintza, Agifes, Bepiztu, Cáritas Gipuzkoa, Cruz Roja, Elkartu, Emaús Fundación Social, Erroak-Sartu, Iresgi, Haurralde Fundazioa, Hurkoa Fundazioa, Fundación Izan – Proyecto Hombre, Loiolaetxea, Rais Euskadi, Fundación Peñascal, Lahar Elkargoa, Patronato Zorroaga, Sarea Fundazioa, SOS Racismo, Zabaltzen – Sartu.

**AGIPAD** 1980an sortu zen. Gipuzkoako irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, eta herri onurarako aitortu da. Ekipo profesionalen bidez, drogen erabilera arazot-suekin lotutako hainbat eta hainbat zerbitzu eskaintzen ditu oso-osorik, komunitateko baliabideekin lankidetzan. 1982an *Haize Gain* izeneko komunitate terapeutikoa sortzeaz gain, tratamendu ambulatorioaren zerbitzua ere martxan jarri zen. 1985 eta 1990 artean AGIPADen hainbat programa eta zerbitzu egituratu ziren: Ikerketa eta Prebentzio Zerbitzua 1986an; Familietan Esku Hartzeko Zerbitzua 1988an; eta Presoentzako Atentzio Zerbitzua Martuteneko espetxean, 1990ean. Duela gutxi, 2007 amaieran, *Haurtxoak* egoitza-programa berria sortu da seme-alabak dituzten ama drogazaleentzako.

**Hauxe esan digute:** *2005ean hasi ginen Loiolaetxearekin harremanetan. Agipadeko profesionalak Ategorrieta kaleko abegi-etxea bisitatu eta ezagutzera joan ginen. Hasieratik egon dira gune komunak, bai erakunde bileretan, bai SARGIren erakunde sozialen plataforman. Une honetan Espetxeetako Zerbitzua Martuteneko Espetxeetako Batzorde Sozialaren parte da Loiolaetxearekin batera. AGIPADeko laguntza-zerbitzuok zuzenean egon gara baliabidearekin harremanetan, kasu komun koordinazioan lan egin dugu, dela Martuteneko espetxetik asteburuan baimenarekin atera direlako edo aske utzi dituztelako, dela kanpoko tratamenduen kasuan, Loiolaetxean bizi direla tratamendu ambulatorioa edo komunitatekoa dutenean, jarraipen fasean. Ibilbide horretan profesionalekin izan dugun harremana bikaina izan da beti eta antzeman dugu, kasuak, egoera eta ezaugarriak aintzat hartuta, bakoitzari arreta handia jartzen zaiola. Une honetan antolakuntza nahiko aldatzen ari gara eta, beraz, baliteke epe laburrean guztiok biltzeko proposamena egitea. Horrek guztioi lagunduko digu pixka bat hobeto ezagutzen zerbitzuek eta elkarteek egun nola jarduten duten.*

*Tratamenduan egon diren edota dauden pertsonen kasuan, bakoitzaren berezitasunen arabera aholka eta lagun genezake.*

*Teknikari dagokionez, eta komunitateko baliabideen bidez gure jardunbidea nola hobe dezakegun pentsatuz, uste dugu denoi komeni zaigula jarduteko protokoloak zehaztea koordinatzeko, lekualdatzeko, eta, ondoren, tratatu eta landu ditugun kasuen jarraipena egiteko.*

**GIZALDE** - Gipuzkoako Boluntariotza  
 C/ Idiakez nº6 bajo - Donostia  
 Tel. 943 428 013  
 gizalde@gizalde.com  
 www.gizalde.com.

**Hauxe esan digute:** Agentziak izan du harreman pixka bat zuekin. Batetik, lan egiten duzuen kolektiboarekin boluntario gisa aritzeko interesa erakutsi duen norbait bidaltzeko. Beste alde batetik, hainbat aldiz joan gara zuen etxera “Ireki begiak, elkartu eta ekin!” sensibilizatzeko programan parte hartu duten ikastetxeetako gazteekin. Pertsonalki, oso proiektu interesgarria eta erakargarria iruditzen zaigu, Zuekin harremanetan jarraitzea gustatuko litzaiguke ikusteko nola lagun dezakegun. Sentitzen dugu gehiago ezin lagun-tzea. Zuen lanarekin jarraitzera animatzen zaituztegu eta espero dugu “banaketa” honek indarrak hartzeko balio izatea.

## IV. BLOKEA

### HAMAR URTE BERANDUAGO ETORKIZUNARI BEGIRA

#### SARRERA

Dokumentu honek Loiolaetxea proiektuan partaide direnen eta kanpoko zenbait adituren oniritzia izan du. Lan horren guztiaren erakusgarri, proposamen sorta bi dakartzagu jarraian; lehenbizikoek, deskribapen itxura dute nagusi, eta bigarrenak, inspirazioa. Hala ere, ez dute inola ere aurkeztutako lanaren laburpen soil bat izan nahi, eta, hortaz, alde nabarmenenak azpimarratzeaz arduratuko gara, lehenbiziko 3 blokeek eskaini dizkiguten intuizio eta egiazta-penak bereziki azpimarratuz. Horietan, hain zuzen, jasotzen dira historia, inspirazioa, haus-narketak, esperientzia pertsonal eta barnekoenak, eta azterketa kualitatibo eta kuantitatiboak.

Aurrera, gerora, begira gaude, eta inklusio eta elkartasunera garamatzen bidea eskaini nahi dugu, eta hori guztia, elkartasun komunitariotik abiatuta, guztiok sinetsi, fidatu eta horren alde eginez gero posible baita. Eta, bestalde, gai horien guztien azpian bada garrantzitsua den beste bat ere: Zertara bideratuta gaude hamar urte igaro ostean? Gizarte parte-hartzean baliabide garrantzitsu eta ezinbestekoa izatera, bere lanaren ehuneko handi bat esku-hartze horretan komunitate ireki eta elkartasuna bultzatuko duena izatera eskaintzean... Are urrunago joatea da orain planteatzen duguna, Loiolaetxearen geroari herentzian jaso eta birsortutako identitateetik begiratzea, hots, berriz ere deituta izan garen Misiotik, barnean daramagun Espiritualtasunetik abiatuta, eta denon baliabideak aintzat hartzen dituen Antolakuntza batetik abiatuta. Hori guztia, lehenago esan den bezala, Elkartasun Komunitate bat indartzeko helburu argiarekin, gizarteari opari gisa emango zaion oparia, bestalde.

#### ZERTARA GAUDE DEITUTA HAMAR URTEREN OSTEAN?

##### Identitatea

- Loiolaetxea Jesusen Lagundiaren obra edo egintza da. Haren bizitzan eta egituretan barnebildutakoa, Misioa harengandik jasotzen duelako eta karisma ere partekatzen



duelako. Beste ezereen gaintik elkartasun eta barneratze edo inklusio misio izatea du helburu, eta bertan errealitatearekiko sinestunen irakurketa eta konpromisoa bultzatzen dira; hots, ebanjelioak dakarren berri onarekiko esperantzaren esperientzia, bera baita errealitatea aldatu, hausnartu eta elkarrizketa bultzatzeko gaitasuna duena.

- Loiolaetxea komunitate bakarra izatera deituta dago, aniztasuna eta rol desberdinak kontuan izango dituen, funtzio eta egoera pertsonalak ere aintzat izango dituen. Bere erdigunea eta izatearen arrazoi behinena inklusioaren esperientzian oinarrituko du. Horrelakoetan, gizaki guztiak dute emateko eta hartzeko asko, eta hain zuzen, solidaritate afektibo eta eraginkor horixe da biltzen gaituena.
- Loiolaetxearen inguruan biltzen garenon harreman-dinamika elkarriz laguntzean susztatzen da, gradu, inplikazio-maila eta modu anitzetan, baina elkarbanatzearen logikak gidatuta beti ere. Laguntasun hori ez da soilik banakakoen kasu pertsonaletan soilik ematen, are urrunago joaten baita, instituzioekiko harremanetaraino ailegatzen baita.

### Misioa

- Loiolaetxeak harrera eta bata besteari laguntzean datzan esperientzia eskaintzen du.
  - Batik bat, gizarte bazterketa pairatzen duten gizaki eta giza talde baztertuen inklusioa du helburu. Donostia eta Gipuzkoa ditu lan-esparru nagusiak.
  - Bertako protagonistek gizarteari oro har eskain diezazkieten gizatiartzearen aldeko ekimen bidezkoak identifikatzea ere bada Loiolaetxearen xedea.
  - Hori guztia gauzatu eta bideratzeko kontuan hartu behar da eguneroko errealitatea etengabe ari dela aldatzen eta harekin harremanetan burutu behar direla inklusio ekintzak.
- Loiolaetxeak lan profetikoa egitea du xede, bideak irekitzea eta denei ikusaraztea posible dela beste modu bateko bizitza, inklusio ardatz izango duena eta bazterketa albora utziko duena. Horretarako erreferentia argia izango da: “familian egoten jakite” berri bat eraikitzea eta garatzea, beti ere beste familia eta instituzioen laguntzarekin.

### Espiritualtasun

- Loiolaetxeak inklusiotik abiatzen den espiritualtasuna eskaintzen du, eta abiapuntua bakoitzak bizi izandako esperientzia bakar eta aldaezinean oinarritzen da. Esperientzia hori eguneroko berritu eta konpartitu nahi dugu. Ebanjeliotik hartzen dugu eredu: ukituta egon arren apurtzen ez den kanaberak sortzen duen harridura eta hautuarena, esaterako. Edota, itzaliko ez den kandela muturrak sortzen duen konpromisoarena.
- Historian betidanik izan dira itxaroten jakin izan dutenak eta haiengandik jasotzen dugu itxaropena. Egituren aldaketa amesten dutenen itxaropena eta, era berean, bakoitzak

bere bizitzaren gizatiartzea espero dutenena. Gure espiritualtasuna ez da sinesgogorra eta ez diote ikararik eragingo sinesten ez dutenek eta fedegabeek, Erreinu gorenean sinesten ez dutenek, hura presente baitago bidezko harremanetan, hurbilekoetan, eta konpromiso eskatzen dutenetan, horietan baitira mundua eguneroko aldatzeko gaitasuna duten bakarrik.

- Uste dugu bizitzaren gurutzean ere badagoela bizitarik eta bizitazik baino ezin dela bizitza sostengatu. Jesusen Jainko inspiratzailearengan, bizitza emateko den horrengan, justizia eta oparotasuna banatzen dituen horrengan sinesten dugu.

### Antolakuntza eta baliabideak

- Loiolaetxeak daukan aberastasun handiena eta ordezkazina, hura osatzen duten gizakiak, norbanakoak dira. Izan ere, handia da benetan ere bakoitzak eskain dezakeena. Beharrezkoa dugu, hala ere, azken urteotan Loiolaetxea den bezalakoa izateko emandako pauso eta mugimenduetan sakondu eta haiek gehiago lantzea. Horiei esker lortu da Loiolaetxea dena izatea: Elkartasun Komunitate ireki eta inklusiboa. Tresna horiek honako hauek dira: laguntasuna, formazioa, dibertsitatearen kudeaketa zuzena eta positiboa, taldearen garrantzia, taldekideen ardurak banatzea eta partaideen gaitasunak ahal bezain gehien garatzeko laguntza eskainiko dien oinarritzeko komunitatearen presentzia.
- Hori guztia horrela bada, beharrezkoa dugu antolakuntza malguagoa eta orekatuagoa eraikitzea, Loiolaetxeak bereak dituen oinarritzeko prozesuetan (harrera, laguntza, gizarte sareak, bizitza konpartitzea) bakoitzak askatasuna izan dezan “hartu eta emateko”, beti ere bakoitzaren trebetasun eta aukeren arabera, noski.
- Loiolaetxearen abiapuntua etengabeko dinamika sortzaile eta eraikitzailean euskarritzen da, zeina aniztasunetik eta dibertsitateetik sortzen den zuzen-zuzenean. Hala ere, indar hori guztia bideratu beharra dago eta horretarako beharrezkoak dira planifikazio- eta antolaketa-tresnak, eraginkorrago izan dadin. Halaber, beharrezkoa da gainontzeko instituzioekin eta taldeekin lan-harreman finko eta iraunkorrak eraikitzea.

### Intuzioak – Constataciones

1. Loiolaetxeara “iritsi egiten zara”. Loiolaetxeako kideen bide biografiko ezberdinetan beti errepikatzen da patroia hori, Loiolaetxeara “iritsi egiten zarela”
2. “Loiolaetxeara iristeko” bitartekoak behar dira eta horiek harreman, ezagutza eta interes maila oso ezberdinak dituzte Loiolaetxearekiko. Artekarari lanak egiten dituzten “bitarteko agente” nagusien artean hainbat erakunde, baliabide publiko-sozialak eta Loiolaetxeako gizarte-sare informala bera daude.

3. Loiolaetxeara iristen direnek, beti daukate atzetik bizitza bilatzeko prozesu bat; beraz, helburu hori lortzeko baliabidea da Loiolaetxea. Bertako kide gehienak “egoiliarrak” dira, baina dinamika paraleloa dago Loiolaetxea osatzen duten beste taldeetan (BK, langileak, boluntarioak, etab.).
4. Jendea Loiolaetxeara iristen denean gehien errepikatzen den egoera “haustura edo mugak” dira. Hala ere, egiaztatu da helburuak ez direla berdinak iristen direnean eta ateratzen direnean, eta oso denbora tarte laburrean aldatzen direla. Batzuetan egoiliarrek paso egiten dute eta ez dute nahi izaten helburuak zehazterik.
5. Loiolaetxean gehien ikus daitezkeen aktoreak euren biografietan “haustura” larriak (psikologikoak, emozionalak, sozialak) izan dituzten pertsonak dira, baina haustura horiek askotan ez dira ikusten gurekin harremanetan jartzen diren unean.
6. Loiolaetxeako zein kide kontuan hartzen dugunaren arabera, helburu ezberdinak jartzen dira obra horretan (balio esanguratsuenen zerrenda, adierazgarrietik gutxien adierazten duenera). Gehienetan ez dira iragazgaitzak izaten euren artean.
  - Baliabide sozialaren balioa.
  - Balio humanitario eta solidarioa.
  - Proiektu pertsonalean eta bokaziozkoan autoerrealizatzeko balioa.
  - Profesionalki garatzeko balioa.
7. Bizitako esperientzia emozionalari izena emateko Loiolaetxeako kideek gehien erabili duten metafora “familia” da.
8. Aipatu berri dugun metafora da gehien erabiltzen dena, baina Loiolaetxeako kide guztiek esan dute egitura konplexua dela, ez dela batere gardena egitekoei, rolei eta esleipenei dagokienez eta bertako taldeak (egoiliarrak – bizi-komunitatea – profesionalak – boluntarioak) zein helburuak eta funtzionatzeko moduak oso hierarkizatuta daudela.
9. Loiolaetxeako esperientzia bizi izan duten gehienek aitortzen duten efektu positiboena “sendatzea” da, batez ere harreman sozialei eta pertsonalei, duintasunari, afektibitateari eta intimitateari dagokienez.
10. “Sendatzeko esperientzia” horrekin batera, esan behar da Loiolaetxean desgaste pertsonal handia jasaten dela “erantzukizuna duten taldeak” deritzen taldeetan (Bizi-komunitatea, langileak eta boluntarioak). Askotan ezin izaten da bitarteko egokirik aurkitu egoera horiei aurre egiteko.
11. Ideiei, antolakuntzari eta funtzionamenduari dagokienez, Loiolaetxeako esperientzia biziki baldintzatzen dute “lidergo pertsonalek” (erantzukizuna duten taldeen) baitan.
12. Erakundearen diskurtsoa eta esperientzia ideologikoa oso landuta daude (batez ere erakundearen inspirazio diren izaera erlijioso-espiritualari eta humanistikoari dagokienez). Loiolaetxeari, “baliabide sozial” gisa hartuta, izaera pragmatikoa eman ohi zaio (jarduteko moduak, lanerako mekanismoak, “instituzionalizatzea edo burokratizatzea”, profil teknikoa). Askotan izaera horiek ez dira berdinak izaten eta gatazkak egoten dira. Horrek prozesuak blokeatu ere egin ditzake eta batzuetan ez dira aurkitzen objektibo bihurtzeko tresnak; gatazka egoerak konpondu ahal izateko, bertan parte hartzen duten pertsonak soilik egoten dira.
13. Jendearen ustetan Loiolaetxeak “ez dauka zerikusi gehiegi errealtatearekin” eta “elkarrizketa gutxi” dago bertan nagusitzen diren dinamiketan.

## DOKUMENTUAN ERABILITAKO TERMINOEN GLOSARIOA

Terminoak alfabetikoki ordenatuta daude. Horrela, erabilitako terminoak azalduko dira, eta irakurleak bere ezagutza aberasteko aukera izango du, hurrenkera hau erabiliz edo dokumentua irakurri ahala terminoak hemen kontsultatuz.

### 1. LAGUNTZA

Ignaziar espiritueltasunean laguntzea zera da batez ere, besteei honako hauek errazago eta bat-batean aurkitzen laguntzea: Bizitzaren Jainkoa, euren bizitzen egia eta bizitzan beste pertsonekin, taldeekin, errealitatearekin eta abarrekin ditugun harreman justuak. Hori lortzeko, elkarrekin hitz egiteaz gain, elkarri entzun eta lagundu behar diogu. Elkarri laguntzen diogunean, helburu nagusia bizitzaren esperientziatik elkarrekin bila aritzea izango da. Halaber, inplizituki bada ere, errealitatea zein mundua eta bere justizia berantolatatu behar dira elkartasunez eta konpromisoa hartuz. Harreman horren emaitza apurka-apurka zehazten da; kontuan hartu behar dira, besteak beste, askatasuna (geroz eta gehiago) eta kontsolamenduaren esperientzia. Ariketa espiritualak egiten direnean eta "Jainkoarengan" lagun gisa moldatzen gaituen banaketa pertsonalean zein taldekoan, laguntzea oso garrantzitsua eta baliotsua da.

### 2. GIZARTERATZEN LAGUNTZEA

Gizarteratzen laguntzen duenak dispositibo afektibo eta eraginkorrak garatzen ditu. Helburua da norbanakoak biologikoki, psikologikoki eta sozialki bere osotasunean aintzat hartzea, horien arriskuak murriztea, horien beharrez arduratzea, horien gaitasunak indartzea eta horien baliabideak maximizatzea. Horretarako, beharrezko eta baliabideei adi egongo da, eta pertsonen arteko komunikazioa eta harremanak nabarmenduko ditu, gizarte inguru normalduan bizitza normaldua eduki ahal izateko baliabideak eta tresnak emateari begira.

### 3. BIZI-KOMUNITATEA

Bizimodu ezberdinak (laikoak, erlijiosoak eta abadeak, besteak beste) aukeratu dituztenen eta Loiolaetxeako dinamikan ere funtzio, erantzukizun eta egiteko ezberdinak (heziketa-taldea, Loiolaetxean bizi den komunitate-taldea etab.) dituztenek osatutako taldea da.

- Oso identifikatuta sentitzen dira jarduteko moduarekin, Loiolaetxeako familia kutsuarekin.
- Ahalegin handiak egiten dituzte Loiolaetxeako Misioa aurrera ateratzeko, eta horren esanetara daude.
- Bereziki partekatzen dute lan horren ezaugarri den espiritueltasuna.

Harrera egiteko, laguntzeko eta gizarteratzen laguntzeko oinarriko ardatza dira Loiolaetxeako dinamikan.

### 4. JESUSEN LAGUNDIA

Jesusen Lagundia deritzon erlijio-familia 1540an sortu zuen Loiolako Ignaziok, 1528tik Pariseko Unibertsitatean ikaskide zituen bederatz lagunekin batera. Taldea Paulo III. Aita Santuarengana joan zen, eta munduko edozein lekutara bidaltzeko eskatu zion, beharrezko handiena zuen lekura. Garai hartan edozertarako prest zeuden, baita edonora joateko ere, eta hala jarraitu zuten, euren misioetan Aita Santuari obeditzeko boto bereziaren bidez. Jesusen Lagundia bizitza aktiboa duen ordena erlijioso eta apostolikoa da. Ordena honen oinarria ariketa espiritualen esperientzia da, eta honakoak ditu helburutzat: batetik, Jesusen Jainkoarenganako Fedea zein horren Barri Ona iragartzea, eta bestetik, Barri Ona sustatzea eta horren Justiziarekin konpromisoa hartzea. Gaur egun, 20.000 jesuita inguru daude bost kontinenteetan; komunitate handiaren zerbitzura aritzen dira Elizan lanean.

### 5. BANAKETA

Espirituaren esperientzia da. Horren bitartez, pertsonak (edo komunitateak) Jainkoaren nahia ezagutu dezakete eta nahiarekin konprometitu daitezke; izan ere, bizitza osoa eta justizia da, iragarpena eta gizakiaren konpromiso solidarioa. Barneko mozioei zein taldekoei edo gizartearenei (kontsolamenduari edo nahigabeari dagozkion mozioak, argiak eta itzalak) begiratuko zaie eta horiek aztertuko dira. Helburua da Jainkoaren nahia bete eta bakoitza bizitzan orientatzea. Horretarako, beharrezkoa da norbere burua ezagutzea eta kontzientzia argi edukitzea, egon daitezkeen trikimailuez eta iruzurrez jabetzeko, zeren Jaunak askatzeko gonbidapena luzatzen digu eta hala aritu ezean, ezinezkoa da jarraipena behar bezala egitea.

## 6. BEREIZKUNTZA OTOIZGILEA

Bereizteko metodoa da, eta batez ere taldean banatzeko erabiltzen da. Honako prozesu hau zehazten da dinamika otoizgilearen bitartez:

1. Se Hasteko, norbanakoaren “axolagabetasun egoera” identifikatzen da, delako gaiari dagokionez.
2. “Argiak” edo mozio positiboak identifikatzen dira, delako gaiari dagokionez.
3. “Itzalak” edo mozio negatiboak identifikatzen dira, delako gaiari dagokionez.
4. Hori guztia kontuan izanda, nola jardun zehazten da.

Aurretik azaldutako banakako lana bateratu eta dinamika bera errepikatzen da, bata besteari adierazitakoa oinarritzat hartuta.

## 7. HEZIKETA-TALDEA

Bizi-komunitatearen barruan prestakuntza-profil teknikoagoa eta profesionalagoa duen taldea da. Heziketa-taldearen funtzioa eta egitekoa esku-hartze aldi gizarteratzen laguntzea da batez ere.

## 8. ESPIRITUALTASUNA

Espiritaltasuna talde baten bizitzaren ezaugarri diren printzipio eta praktiken multzoa da honako hauei dagokienez: horien sinesmenak, iragaitea bizitzeko modu ezberdinak eta bizitza ulertzeko zein bizitzeko modua. Espiritualtasun oro militantzia da munduan eta errealtatean, sinestearen esperientziak errealtatearekin eta gure errealtatearekin konprometitua bizitzeko ematen dizkigun uste sendoetatik abiatuta.

Erljio-tradizio ezberdinetan parte hartzen dugunontzat, Jainkoarekin harremanetan egoteko prozesuan jartzen gaituen esperientzia eta bere egia izatea da espiritaltasuna. Jainkoaren Hitzaren bere osotasunean eta espezifikoen dagoen unea fededunak entzuten eta jarduten duen unea da, hau da, otoitz egin eta jarduten duenean, kontenplaten eta jarduten duenean. Beraz, espiritaltasuna batasuna eta aniztasuna da; batasuna fede-esperientzia bakarra delako eta aniztasuna hainbat eratara egiten delako.

## 9. GIZARTERATZEA

Prozesu honen bitartez, jendeak eta gizarteak ahalmen batzuk lortu eta garatzen dituzte, eta horien bidez, gizalegez izan ditzakete harremanak, erreferentziatzat hartuko dituzten taldeekin komunean duten guztia barneratuz eta praktikatu. Zenbat eta gehiago partekatu balioak, sinesmenak, praktikak, etab., eta horiek guztiak zenbat eta gehiago aitortu elkarri, orduan eta gizarteratua egongo dira, gizarteak gehiago onartuko ditu, eta bizimodu normaldua izango dute.

## 10. ESKU-HARTZEA

Pertsona edo talde batek baztertuta edo gizarteratu gabe dauden beste pertsona edo talde batzuei laguntzeko mekanismo guztiak sartzen dira esku-hartzean. Horien bitartez, jarduteko eta erreakzionatzeko ahalmena garatzen da. Horrela, jarduteko ahalmena berreskuratzen laguntzen da, baztertuak izateko edo gizarteratuta ez egoteko arrazoiak ezabatuko dituzten ekintzak egiten, alegia.

## 11. JESUITAK

Lagun artean honela deitzen zaie Jesusen Lagundian daudenei. Boto erlijiosoen bidez (pobrezia, obediencia eta kastitatea), Elizak Lagundiari agindu dion misioaren zerbitzura jartzen dituzte Lagundiko kideak eta horien bizitzak. Horrez gain, Jainkoak harreman justuak eta anaitasuna iragartzeko duen indarraren lekuko dira. Konpromiso hori etengabeko bihurtze prozesuan bizi dute, eta misioa garatzen duten erakundeei ere badagokie prozesu hori.

## 12. LAIKOAK

Bere bokazioa Ebanjelioarekiko erabateko konpromisoarekin bizi duen jendea da, eta bizipen horretan ez dago ez “botorik”, ezta apaizgorako sakramentu-ordenaziorik ere. Jainkoak bere seme-alaben anaitasunarentzat amesten duen lekua izateko munduak behar dituen transformazioen iragarpen profetikoa eta konprometitua da horien Elizako bizitza.

## 13. BIZI-PROZESUA EDO BIZITZeko PROIEKTUA

Helburuen, etapen eta tresnen zein elementu horien garapenaren definizio formaldua da. Horren guztiaren azken helburua da bizimodu normaldua edo “gizarteratua” lortzea eta mantentzea.

## 14. BIZITZeko ALDIA

Esku-hartze prozesuaren erdiko etapa da. Aldi honetan jendea orokorrean Loiolaetxean bizi izaten da. Halaber, bizitzeko proiektu normaldua zehazten dute eta gizarteratzeko laguntzarekin hasi ondoren garatu egiten dute, aipatu berri dugun bizitzeko proiektua lortzeari begira. Etapa honen iraupena ez da beti berdina izaten, baina gehienez urte eta erdi inguru irauten du.

## 15. “EGOILIARRAK” – “KIDEAK”

Talde honetakoak baztertzeko arriskuan edo guztiz baztertuta egon ohi dira. Loiolaetxearen iristen direnean, esku-hartze prozesua zehaztea izaten da helburua, bizitzeko

proiektu normaldua garatu ahal izateko. Loiolaetxeako Nortasuna, Misioa eta Espiritualtasuna aglutinatzen eta deitzen duten gunea dira.

## 16. IRAGAITEA

Esku-hartze prozesuaren etapetariko bat da. Pertsona bat etapa horretara iristen bada, bizitzeko proiektua normalizatzeko gutxienezko helburuak bete dituelako da. Horrela, autonomia izango du bizitzan, hau da, egoitza independizatu batean bizi ahal izango da, nahiz eta oraindik gizarteratzen lagundu beharko zaion, guztiz burujabe izan arte. Aldi honen iraupena ez da beti berdina izaten, bakoitzaren premien arabera izaten baita, baina gutxi gorabehera urte eta erdi irauten du.

## 17. BALORAZIOA

Esku-hartze prozesuaren hasierako etapa da. Pertsonak eta Loiolaetxeak elkar ezagutzen dute, jakiteko ea beharrezko elementuak dauden Loiolaetxean bizitzen jarri aurretik gizarteratzen lagundu ahal den.